

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Enpresaren eta bezeroaren arteko harremana zuzena eta estua izatea nahi dugu.

Horretarako, telefono zenbaki bat eta email kontu bat irekiko ditugu haien zalantza eta kexa guztiak kontuan hartzeko eta konpontzen saiatzeko. Telefono eta email kontu (smartshower@gmail.com) horien atzean enpresako lanpostu horretan espezializaturiko langileak egongo dira.

Horrez gain, bezero berriak erakartzeko, kaseta bat jartzea pentsatu dugu; honela, inguruko pertsonak produktuari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Hasieran kaseta Bilbo inguruan kokatzea erabaki dugu, baina, proiektua arrakasta izatekotan, gure asmoa beste hiri batzuetan kasetak jartzea da.

Hau guztia, enpresak bezeroekiko duen hurbiltasuna indartzea ahalbidetzen du eta, bide batez, bezero berriak eskuratzea.

